

Etxean ura aurrezteko aholkuak

Ura funtsezko baliabidea da. Arduraz erabiltzeak Araban ur-hornidura jasangarriagoa izaten laguntzen du, eta ur-eskaria handitzen den edo ur-eskasia dagoen garaietan berme handiagoz jarduteko aukera ematen du. **Eguneroko keinu txikiei esker, benetan behar dugun ura baino ez dugu erabiltzen.**



Komunean

- Bainua hartu beharrean, aukeratu dutxa, eta ahalik eta laburrena izan dadila.
- Dutxa batek minutuko 8 eta 16 litro ur artean kontsumitzen ditu.
- Ez erabili komuna paperontzi gisa eta, ahal bada, instalatu deskarga bikoitzeko zisterna.



Sukaldean

- Erabili ontzi-garbigailua beteta. Eskuz garbitzeak baino askoz ur gutxiago kontsumitzen du.
- Berrerabili fruta eta barazkiak garbitzeko edo jakiak egosteko erabilitako ura landareak ureztatzeko. Horrela, ura aurrezteaz gain, landareak ere ongarritzen dira.



Garbiketa

- Patioak eta terrazak garbitzeko, erabili erratza mahuka erabili beharrean.
- Bildu txorrotatik ateratzen den ur hotza ur beroa iritsi arte, eta berrerabili garbitzeko edo ureztatzeko.



Autoa

- Saihestu autoa mahukarekin garbitzea; 300 litro ur ere kontsumi ditzake. Ahal den guztietan, aukeratu ura birzirkulatzen duten garbitegi automatikoak.
- Etxean garbituz gero, erabili kuboia eta belakia.



Lorategiak, baratzeak eta ureztaketa

- Ureztatu iluntzean, lurrunketa murrizteko.
- Erabili tantakako ureztaketa eta, ahal denean, bildu euri-ura.
- Aukeratu bertako landareak, gure klimara egokitutakoak eta ur gutxi behar dutenak.



Igerileku pribatuak

- Mantendu ura egoera onean, igerilekua beharrezkoa ez denean hustu behar ez izateko.
- Erabili estalki bat lurrunketa murrizteko eta egiaztatu ez dagoela ur-ihesik.

Aldea eragiten duten ohitura txikiak

- Gorde ur-botila bat hozkailuan, ura hoztu arte txorrota irekita utzi behar ez izateko.
- Berrikusi txorrotak tantarik ez galtzeko eta instalatu emaria murrizteko gailuak. Etengabe erortzen den tanta batek uste duguna baino ur gehiago alferrik gal dezake.

Aholku gehiago

